



## **Balorezko proposamena**

Gure proiektua webgune eta aplikazio bat izango dira non denboraldi baterako nahi duzun produktua alokatu dezakezun, batez ere, aisialdiarekin lotura duten ibilgailuak. Esaterako, stand up paddleak, bizikleta elektrikoak, onewheel-ak edo patinete elektrikoak.

Geure helburua ez da ongi posizionatuak dauden produktuak soilik alokatzea, baizik eta ibilgailu berritzaileak, onewheel-a eta unicycle elektrikoa izan daitezkeen bezala.

Gure webgunea bezalakorik ez dago Europa mailako merkatuan, beraz ez dugu zuzeneko lehiakiderik. Hala ere, patinete elektrikoak, bizikleta elektrikoak edo SUPak alokatzen dituzten negozioak (denda fisikoak) gure konpetentzia izango dira.

Guk ez ditugu produktuak eskainiko, bere produktuak alokatzen dituen pertsona eta alokatu nahi duen bezeroaren arteko bitartekari gisa funtzionatuko dugu. Sare sozial antzeko bat, alokatzailea eta bezeroak elkar harremantzen dituen.

Ez dugu denda fisikorik izango, enpresak lokala izango du soilik non beharrezko lanak egingo diren. Enpresaburua eta langileek lan egingo dute bertan. Langileriaren zati handi bat bezeroaren arretan zentratuko da, alokatzailearen edo bezeroaren artean arazoak sortuz gero beharko direnak.

Horretaz, produktuak aseguratuak egongo dira. Bezeroak hasiera batean fiantza bat ordaindu beharko du eragozpenik izan ezean itzuli egingo zaiona. Produktu hori hautsi egiten bada, zati bat fiantzarekin ordainduko da, eta beste zati osoa guk estaliko dugu. Prozesu hau honelakoa izango da: guk aseguru batekin aliantza egingo dugu (Reale Seguros adibidez). Horren ondorioz, aseguru merkeago bat eskuratuko dugu. Aseguru horrek produktuen arazoak estaliko ditu. Gainera, alokatzen duenak fiantza bat ordainduko digu, eta produktuak eragozpen bati izanez gero, itzuli egingo da.

Horrela, alokatzaileek eta baita bezeroek ere esperientzia seguru bat izango dute eta gure webgunea erabiltzera bultzatuko ditugu.



Gure produktuen prezioa eskaria eta eskaintzaren legearen arabera izango da, guk ez dugu prezioan eragingo, alokatzailea eta bezeroaren arabera izango da.

Enpresak bi modu ezberdinetan lortuko du dirua: publizitatearen bitartez eta zergen bitartez. Diru-iturri nagusia publizitatea izango da. Marka edo bestelako enpresa ezberdinek iragarkiak jartzeko aukera izango dute. Bestalde, alokatzaileek haien produktua ikusgarriagoa izateko ordaintzeko aukera izango du, hau da, ordainduz gero, bere produktua gomendioen atalean sartuko da, hasierako planoan kontsumitzaileek webgunera sartzekoan ikusiko duten lehen gauza izateko.

Bestalde, alokatzaileek zerga batzuk ordaindu beharko dituzte gure zerbitzua erabiltzeagatik, haiek jarritako prezioaren %20, adibidez. Zerga horiek ez ditu alokatzaileak zerbitzua erabiltzetik urrunduko, jendea prest baitago bere produktuak aseguruia izateagatik ordaintzea. Aseguruia eskaintzen dugun bakarrak gara eta horrek besteekiko gailentzen gaitu.